



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0026

**GOBERNU BATZARRA**  
**2023.12.22**

**Alkatea:**  
**Angel Martinez de Rituerto Arregi**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Kristina Pelaez Errazkin**

**Ander Figuerido Zubiria**

**Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko abenduaren hogeita bian, 10:00etan, bigarren deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:**

**Ez dira bertaratu:**  
**Aitor Agirresarobe Murgi**

**Estitxu Kortejarena Ugarte**

**Goiuri Ezeiza Arandia**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzaile akzidentala:**  
**Paulino Alonso Eraso**

**1. Etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmena.**

**2. Dekretu hauen berri ematea:**

**2023/2657 Dekretua: 2023/56 faktura zerrenda.**

**2023/2698 Dekretua: 2023/58 faktura zerrenda.**

**1. ONARTZEA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN SINATUTAKO HITZARMENA LUZATZEKO PROPOSAMENA**

2022IHTO0003

**IKUSIRIK:**

**Lehena,-** 2017. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiako Gizarte Politiketako Departamentuak eta EUDEL erakundeak lankidetzan hitzarmenerako proposamen bat prestatu zuten, non finantzazio sistema berri bat ezartzen baitzen eta zenbait hobekuntza sartu baitziren zerbitzuaren eskaintzan, hala nola, zerbitzuaren iraupena eta intentsitatea handitzea, erabiltzaileen baterako ordainketa txikiagotzea, eta zerbitzua mendekoen kalifikazioa ez zutenengana zabaltzea.

Horren ondorioz, 2018ko martxoaren 20an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Diputatuen Kontseiluak mendekotasuna duten pertsonentzako Etxeko Laguntza

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: [udate@tolosa.eus](mailto:udate@tolosa.eus)

1



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0026

Zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin sinatu beharreko hitzarmen erdua, eta, era berean, 2018ko uztailaren 26ko Ohiko Osoko Bilkuran onartu zuen Tolosako Udalak hitzarmen hori (2018IHTP0001).

**Bigarrena,-** 2021eko abenduaren 17an erregistratu zuen Gizarte Politiketako Departamentuak Tolosako Udaleko erregistro orokorrean, 11077 zenbakiarekin, iraungita dagoen hitzarmen hori berritzeko proposamena.

Proposamen horri dagokion udal espedientea izapidetu zuen, 2022IHTP0003, eta ondorioz, Tolosako Gobernu batzarrak, 2022ko maiatzaren 31n erabaki zuen:

<ONARTZEA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO.>

Horiek horrela, 2022-1827 zenbakiarekin erregistratu zen hitzarmen hori, 2022ko ekainaren 17ko datarekin.

**Hirugarrena,-** 2023ko azaroaren 20ko datarekin, jaso zen korreo elektronikoko bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren oharra, ondoko adierazpenarekin:

<<Dakizuen bezala 2023ko abenduaren 31n amaitzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalen arteko hitzarmenaren indarraldia Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko. Aurreikusten dugu Diputatuen Kontseiluak abenduaren 5ean onartuko duela hitzarmenaren luzapena. Izapidetzearen hurrengo urratsa hitzarmenaren luzapena bidaltzea izango da, udal bakoitzak eskumena duen udal-organoak (udalbatzak) onar dezan. Izapide horiek guztiak egiteko epea laburra denez, hitzarmenaren luzapena onartzeko gaia udal-organo eskudunaren abenduko bileretan sartzeko eskatzen dizuegu.>>

Era berean, 2023ko abenduaren 13an, EUDEL erakundeak ondoko jakinarazpena igorri zuen korreo elektronikokoaren mezu bidez,

<<Aurreko asteko zirkularren jarraipen gisa, jakinarazten da gaur, asteartea, abenduaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) finantzatzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmena luzatzea erabaki duela. Dokumentu hori udalei bidaltzen zaie, luzapeneko udal-erabakia har dezaten, hala erabakiz gero.>>

Eta mezu horretan atxikita igorri da Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2023ko abenduaren 12an egindako batzarraldian hartutako erabakiaren jakinarazpena, jarraian jasotako testuarekin:

<<Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2023ko abenduaren 12an egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu du:

“Diputatuen Kontseiluak 2021eko azaroaren 30eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin eta mankomunitateekin etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko hitzarmen erdua onartu zen.

Erabaki horren hirugarren puntuaren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari (gaur egun, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentua) ahalmena eman zitzaion dagozkion hitzarmenak



sinatzeko, bai eta beharrezkoak ziren gainerako kredituak baimentzeko ere, dagozkien urterokoei zegozkien ekitaldiko aurrekontu orokorrak indarrean zeudenean.

Horren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuak zegozkion hitzarmenak sinatu zituen Gipuzkoako Lurralde Historikoko 77 udalekin eta mankomunitateekin.

Hitzarmen horien hamalagarren klausulan aurreikusitakoaren arabera, sinatzen ziren egunean indarrean jarri baziren ere, 2021eko urriaren 1etik aurrera izan zituzten ondorio ekonomikoak, eta 2023ko abenduaren 31ra arte egongo dira indarrean. Era berean, ezarri zen hitzarmenak amaitzen direnean berariaz luzatu ahal izango direla urte natural bateko aldietan, betiere aurrekontu- kontsignazio egokia eta nahikoa badago. Hitzarmenen eta haien luzapenen gehieneko iraupena ez da lau urtetik gorakoa izango, salbu eta arauz epe luzeagoa aurreikusten bada.

Ildo horretan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) 2. artikulua arabera, hitzarmenen luzapenari dagokionez, hitzarmenetan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmenak beste lau urtez luzatzea.

Honaino iritsita, hitzarmen behartuen hasierako indarraldia hurbil dagoenez, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiari entzun ondoren, bidezkoa da hitzarmena urte natural batez luzatzea, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrri eta mankomunitateetan etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateagatiko foru finantzaketaren urteko kostua 2024. urtean 8.192.463 eurokoa izango da guztira, eta hiruhileko lau likidaziotan ordainduko da.

Bestetik, aipatutako espedienteari aplikatu behar zaio abuztuaren 2ko 37/2006 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kargurako gastu espedienteen aurretiazko tramitazioari aplikatzen zaizkion prozedurak arautzen dituen.

Horiek horrela, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren, honako hau,

## ERABAKITZEN DU

**Lehenengo.-** Baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko formalizatutako hitzarmenak urte natural batez luzatzeko, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Erabaki honen I. eranskin gisa erantsi da luzapen-gehigarriaren erudia.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrri eta mankomunitateetan etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateagatiko foru finantzaketaren urteko kostua 8.192.463 eurokoa izango da guztira, eta hiruhileko lau likidaziotan ordainduko da.

**Bigarren.-** Kontratazio espediente hau aldeztatik izapidetzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kargurako gastu espedienteak aurretiaz izapidetzeari buruzko abuztuaren 2ko 37/2006 Foru Dekretua aplikatuz. Beraz, kontratua adjudikatzeko baldintza etengarria izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea 2024ko ekitaldiko kontratutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko.

**Hirugarren.-** Ahalmena ematea Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari hitzarmenen luzapen-dokumentuak sinatzeko, bai eta beharrezkoak diren gainerako kredituak baimentzeko ere, behin urte bakoitzari dagokion ekitaldiko aurrekontu orokorrak indarrean daudenean.



Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek Erabaki honen aurka zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, jakinarazpenaren biharamunetik hasita BI HILABETEKO epean.

Hala ere, alde zurretik, ERREKERIMENDUA egin ahal izango zaio Diputatuen Kontseiluari, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera BI HILABETEKO epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri errekerimenduari berariaz erantzun arte edo presuntzizko ezespena gertatu arte. Hala ere, egoki irizitako beste edozein errekurtsorik jar daiteke. >>

Jakin dezazun eta ondorio egokiak izan ditzan adierazten dizut hori jakin dezazun eta ondorio egokiak izan ditzan adierazten dizut hori.

### KONTUAN HARTURIK:

• *Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren txosten teknikoan honakoa nabarmendu da:*

-Lehena: Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 1875/2015 dekretuan xedatutakoaren arabera, Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua udal-eskumeneko zerbitzua da.

-Bigarrena: Etxez Etxeko Zerbitzua udal eskumeneko zerbitzua izanik, ez dago zalantzarik hitzarmen hori guztiz onuragarria izan dela Tolosako Udalarentzat, zerbitzua indartzea sustatu duelako, alde batetik, eta Udalak zerbitzua finantzatzeko laguntza esanguratsua jaso duelako, bestetik. Esate baterako, hitzarmena indarrean sartu zenetik emandako zerbitzua aztertuta, ondoko datuak adierazgarriak iruditu zaizkigu:

2022: Emandako zerbitzu kopurua → 46.992,70 ordu

Artatutako onuradun kopurua → 196 onuradun

Zerbitzuaren kostua → 958.393,91€

Ekarpenak:

Onuradunak (ordenantza fiskaletan tasa) → 136.430,74€ Gipuzkoako

Foru Aldundia (hitzarmena betez) → 235.177,83€

2023: (Urtarrila-urria)

Emandako zerbitzu kopurua → 45.338,40 ordu

Artatutako onuradun kopurua → 196 onuradun

Zerbitzuaren kostua → 1.078.383,51€ Ekarpenak:

Onuradunak (ordenantza fiskaletan tasa) → 119.839,49€

Gipuzkoako Foru Aldundia (hitzarmena betez) → 340.013,09€ (irailera arteko likidazioa)



-Hirugarrena: Azken urteotako esperientzia kontuan izanda, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailaren iritziz, guztiz mesedegarria da hitzarmen honen indarraldia luzatzea.

Alde batetik, hitzarmenaren harira egin da zerbitzuaren azterketa maila teknikoan, eta hautua egin da Gipuzkoan Etxez Etxeko Zerbitzua indartzeko eta homogeneizatzeko ahalegin garrantzitsua egitearen alde. Horretarako, berrikusi dira udal desberdinetako arautegiak, zerbitzua egungo beharretara egokitzeko erraztutako ereduaren bidez jasotako proposamen bakoitza aztertu eta landuta, eta horrekin batera, onuradunek egin beharreko ekarpenaren gehieneko muga bateratzeko ahalegina ere bideratu ahal izan da.

Bestalde, hitzarmenaren baitan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik jasotako ekarpen ekonomikoak beti izan dira Tolosako Udalaren interesekoak. Hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuen legeak zehazten du Udalaren eskumeneko zerbitzua dela Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, eta ondorioz, zerbitzu horren kostuari ere maila horretan egin beharko litzaioke aurre, hau da, eskuduntza duen erakundeak egin beharko lioke aurre, onuradunek egin beharreko ekarpenekin osatuz obligazio horiek. Dena den, hitzarmen honen baitan, Gipuzkoako Foru Aldundiak ekarpena egiten du, udalerriei laguntzeko zerbitzu honi eusten eta indartzen, hain zuzen ere, onuradunak beren ohiko ingurunean mantentzeko ezinbesteko laguntza eskaintzen baitu zerbitzu honek.

Beraz, hitzarmen honek eragindako obligazioak Tolosako herritarren intereserako guztiz onuragarriak direna ondorioztatzen da.

- *Txosten juridikoan honakoa nabarmendu da:*

#### Aplikagarria den Arautegia:

-Gizarte Zerbitzuei Buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea. Bere 42.4 artikulua arabera, zerbitzu hori Udalen eskumen eremuan ematen da, administrazio hartzaile gisa. 41.3 artikulua arabera, lehen zerbitzuaren kudeatzaile ziren foru-aldundiei –beste batzuk esleitzen zaizkie eskusiboki, udalerrri batzuek zituztenak, hala nola mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitzak eta eguneko zentroak.

Eskumen-birbanaketa horren ondorioz, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorren, hiru euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea aurreikusten da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa hornitzeko finantza-nahikotasuna bermatzeko.

Beste mekanismorik ezean, ELZren baterako finantzaketarako lankidetzeta-hitzarmen honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen arteko finantza-egokitzapenean laguntzen du, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat etorritik.

-Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko



1875/2015 Dekretua.

-Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea -49h.2 artikulua:

“h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea. Estatuaren Administrazio Orokorak edo haren mendeko edo hari lotutako erakunde publikoetako batek eta zuzenbide publikoko entitateetako batek sinatutako hitzarmenen kasuan, luzapen horren berri eman beharko zaio Lankidetzako Organo eta Tresnen Estatuaren Erregistro Elektronikoari, zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen baita.”

Proposatutako luzapena, beraz, legearekin bat dator.

- *Kontuhartzaitza txostenean honakoa nabarmendu da:*

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenaren arabera, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiek indarrean eta aplikagarri jarraitzen dute. Horien artean, Aldundiak eta udalak hartutako konpromiso ekonomikoak.

#### 1.-Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak

Hitzarmenaren hirugarren klausularen arabera, urteko gehieneko foru finantzazioak 2019. urtekoaren berdina jarraitzen du izaten.

Foru finantzaketa zehazteko erabiliko den ordu bakoitzeko gehieneko tarifak ere ez dira aldatu 2019tik, eta ondorengo hauek dira:

Ordu bakoitzeko asteguneko tarifa: 18,87 €

Ordu bakoitzeko igande eta jaiegunetarako tarifa: 22,66 € .

#### Udalak bere gain hartutako konpromisoak

Hitzarmenaren laugarren klausularen arabera, udalerrri bakoitzean foru finantzaketa gainditzen duen gastua udalak hartuko du bere gain.

Zerbitzuaren prezioak, 2019an eta 2023ko otsailaren 1ean sinatutako kontratuarenak hauek dira:

Prezioak	2019	2023
----------	------	------



lanegunak	20,17	24,08
jaiegunak	25,52	31,04

Kontratu berriak 42.500 lanegun ordu eta 1.500 jaieguneko orduak aurreikusten ditu. Dena den, gaur egun benetan ematen diren orduak kontutan hartzen baditugu, lanegun orduan, urtero 53.000 ingurukoak dira, eta jaiegunekoak 500ekoak.

Hauen arabera, Udalak bere gain hartzen duen konpromisoa 220.780,00 euro igoko litzateke 2019an hartutako konpromisoarekin konparatzen badugu, ondorengo taulan ikusten den moduan:

Udalaren konpromisoa	2019	2023
lanegunak	55.250,00	276.130,00
jaiegunak	4.290,00	4.190,00
	<b>59.540,00</b>	<b>280.320,00</b>

- Ondorioak: Hitzarmenaren luzapenak ezartzen duen finantza-egokitzapenerako mekanismoak ez du aldundiaren konpromiso ekonomikoa aldatzen, baina nabarmen handitzen du Udalak hartzen duen konpromisoa, berak hartzen baitu bere gain zerbitzuaren gastuaren igoera osoa.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### ERABAKI DU:

**Lehena-** Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamena, ondorena, hain zuzen: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren artean, etxez etxeko laguntza zerbitzua finantziatzekoa, beste urte betez luzatzea.

**Bigarrena-** Luzapen honen indarraldia finkatzea: 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte.

**Hirugarrena-** Adostutako luzapena sinatzea, hitzarmenaren eranskin gisa. Eranskin horren edukia atxikituta doa.

**Laugarrena-** Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea akordio hau aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0026

**Bostgarrena-** Kontuhartzaitetza Departamentuari eta interesatuari jakinaraztea.

**Seigarrena-** Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

*ERANSKINA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA XXXXKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEKO.*

### ELKARTU DIRA

Alde batetik,

MAITE PEÑA LÓPEZ Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketetako eta Gizarte Politiketako foru diputatua eta Aldundiaren ordezkaria, Diputatuen Kontseiluak 2023ko\_ren\_(a)n egindako bileran hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariaz baimenduta.

Eta bestetik,

....., .....Udaleko.....eta ordezkaria, 2023ko.....ren .....ko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez ekitaldi honetarako berariaz baimenduta.

### AZALTZEN DUTE

I.- Aldeek..... (e) ko..... aren.... (e) (a) n sinatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta xxxx (e) ko Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena, etxez etxe laguntza-zerbitzua finantzatzeko.

II.- Hitzarmenaren hamalagarren klausulak hitzarmenaren indarraldia ezartzen du, eta honako hau adierazten du:

“Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta ondorio ekonomikoak izango ditu, 2021eko urriaren 1etik aurrera, eta 2023ko abenduaren 31ra arte iraungo du. Hitzarmen hau berariaz luzatu ahal izango da, amaitzen denean, urte natural bateko aldietan, betiere luzatutako ekitaldirako aurrekontuzukidura egokia eta nahikoa badago.





TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0026

Hitzarmenaren eta luzapenen gehieneko iraupena lau urtekoa izango da, salbu eta epe luzeagoa aurreikusten bada arau bidez.

ESKUC9466ae7-49a5-4a9c-8ad3-38654be8c998



Hala ere, hitzarmena sinatzen duten alderdiek aho batez eta aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu baino lehen adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea”.

Aurrekoa oinarri hartuta, bi alderdiek adostu dute eranskin hau formalizatzea, honako klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

LEHEN. – Helburua.

Hitzarmenaren indarraldia urte natural batez luzatzea erabaki da, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

BIGARREN.- Hitzarmenaren gainerako zatiek irautea.

Dokumentu honetan aurreikusi ez den guztian, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen guztiek indarrean eta aplikagarri jarraituko dute, eta horiek ere aplikatuko dira dokumentu honi beharrezkoa zaion guztian.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, dokumentu hau elektronikoki sinatzen dute, sinadura elektronikoen tokian eta egunean.>>

## 2. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

### 2023/2657 DEKRETUA: 2023/56 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/2657 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0002

### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**Tolosako Udaleko ESTITXU KORTEJARENA UGARTE andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatezaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:



56. zenbaki duena, 278.194,16 eurokoa.

Zerrenda honetan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

**EBAZTEN DU:**

**LEHENA.**- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

56. zenbaki duena, 278.194,16 eurokoa.

**BIGARRENA.**- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan sinaduran agertzen den datan

Nire aurrean,

Zinegotzi delegatua

idazkaria

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2023/2698 DEKRETUA: 2023/58 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2023/2698 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0002

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**Tolosako Udaleko ESTITXU KORTEJARENA UGARTE andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

55. zenbaki duena, 1.341,52 eurokoa.

Zerrenda honetan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

#### **EBAZTEN DU:**

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

55. zenbaki duena, 1.341,52 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan sinaduran agertzen den datan

Nire aurrean,

Zinegotzi delegatua

idazkaria

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vázquez



TOLOSAKO  
UDALA

2023IGBA0026

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:30ean.**

ALKATEA

IDAZKARIA

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxe: 943 69 75 10 - e-mail: [udate@tolosa.eus](mailto:udate@tolosa.eus)

13

[www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)

Egiatzapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUC9466ae7-49a5-4a9c-8ad3-38654be8c998**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023IGBA0026-2023-12-22 gobernu batzordeko akta/2023-12-22 gobernu